



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSA OHARRA  
2016/07/19

## **Bizkaiak "Fracking" teknikea erabiliz hidrokarburoak ete dagozan aztertzeako proiektuak "debeketako" eskatu deustso Eusko Jaurlaritzari**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, hidrokarburoak ete dagozan aztertzeako proiektuak gauzatzeko frakturazino hidrauliko teknikea erabiltearen kontrako eretxia erakutsi dabe, barriri, gaur goizean. Bizkaiko Batzarrek, Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordean, Eusko Jaurlaritzak, Shesa enpresa publikoaren bitartez, Euskadi barruan zein Euskaditik kanpo, parte hartzen dauen baimenetan, "fracking" teknikea erabilten daben hidrokarburo ez konbentzionalen ezelango ikerketa, azterketa edo ustiapen proiekturik gauzatzea "saihestu" daiala eskatu deustso Eusko Jaurlaritzari.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu daben eta abstenidu egin dan PPrena izan ezik batzarretako gainerako talde guztien aldeko eretxia jaso dauen arauz besteko proposamenean, eskaria egiten jako Lakuako Jaurlaritzari, Hidrokarburo Ez Konbentzionalen Erauzketarako eta Frakturazino hidraulikorako edo "frackingerako" Ingurumen Arloko Babes Neurri Gehigarrien Legea beteko dala defendidu daian. Lege hori gehiengo handiz onartu zan Eusko Legebiltzarrean, baina Gobernu Zentralak bere kontrako helegitea aurkeztu eban, konstituzinoaren kontrakoa ei dalako.

Bukatzeako, arauz besteko ekimenean, Bizkaiko Batzarrek eskaria egiten deustso Eusko Jaurlaritzari, baita be, "hemendik aurrerako ekitaldietako aurrekontuetan, teknika hori erabilten daben ikerketarako, azterketarako edo ustiapenerako ezelango partida ekonomikorik ez bideratzeko".

Gai horri jagokonez, Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordeak, aldi berean, Batzarretako Podemos Bizkaia taldearen beste ekimen bat be jaso dau. Ekimen horretan, teknika horren erabilerea "debeketako legea" eta Estaduan emondako baimenen "moratoria" prestau daizala eskatzen jako Gobernu Zentralari. Batzarrek ez dabe onartu talde moreak aurkeztu dauen ekimena, aldeko botoa emon dauen talde bakarra EH Bildu izan dalako. Gainerako taldeek kontrako botoa emon dabe.

PSE-EE taldeko Alexia Castelo, Eusko Jaurlaritzak teknika horren erabileraren gaineko "jokaera argia" izatearen alde agertu da. Teknika horren erabilerak, beronen aplikazioa baztertzeako eskatzen eban herri ekimenaren aurkezpena eragin eban, eta ostean Eusko Jaurlaritzak ekimen legegile batean jaso eban. Justizia epaitegiek balio barik itzi dabe kautelaz. Batzordekide sozialistaren eretxiz, Podemos taldeak aurkeztu daben ekimena, "itxurak egiteko baino balio ez dauen ekimena" da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Gaur onartu dan arauz besteko proposamena, Batzar Nagusiek “frackingaren” teknikea erabiltearen kontra onartu daben hirugarrena da, 2013an eta 2014an onartu ziran beste bien ostean, María Presak gogoratu dauenez. EAJ-PNV taldeko batzordekideak azaldu dauenez, bere taldeak “beti” izan dau eretxi berbera gai horren inguruan. “Ez gagoz lur azpian zer dagon jakiteko aukeraren aurrean itxita, baina bai fracking teknikea erabiliz ustiatzearen kontra”, esan dau, “teknologiak zelan egiten dauen aurrera ikusi egin beharko dala” azpimarratu eta gero.

Talde Mistoko Arturo Aldecoaren eretxiz, Podemos taldearen proposamena “ideologikoa” da, eta EAJ-PNV eta PSE-EE taldek aurkeztu dabena, barriz, “estrategikoa”. Proposamen hori petrolioaren prezioaren jatsiera dala eta aurkeztu da. Prezioak behera egin dauenez, une honetan ez da beharrezkoa holango ustiapeneta jotzea.

PP taldearen eretxiz, eztabaidea, erauzketa “seguruak eta beharrezkoak diran berme guztiak dituenak” egitearen inguruan egituratu behar da. Eduardo Andrés, ze erreserba dagon ezagutzeko azterlanak egitearen alde agertu da, “etorkizunean kasu bakotxean egokia dan teknikea aukeratzeko”. Azaldu dauenez, Estatuak helegitea aurkeztu eutsan Euskadiko Legeari, “atzeragintasuna” planteetan ebalako eta kostaldeko eta itsas inguruko guneetan prospekzioak egiteko aukerea emoten ebalako. Eremu horreen eskumena Estatuarena da.

EH Bilduko David Lopategik kritikau egin dau bere eretxiz Eusko Jaurlaritzak eta EAJ-PNVk “frackingaren” gaian erakutsi izan daben eretxi “anbigua”. “Ez dagoz kontra”. “Eskumenak Euskadiren esku egongo balira, argi eta garbi daukat buru belarri sartuko litzatekezala teknika horretan”, esan dau.

Podemos Bizkaia taldeak, barriz, ibilpide aldaketea txalotu dau, “orain lau urte ondo ikusten ebelako”. Neskutz Rodríguez bozeroaleak, jeltzaleen eta sozialisten proposamena “garapen iraunkoragoaren aldeko apustu argia” izatea gurako leuke, “frackingak” “kalte larriak” eragiten ditualako ingurumenean. “Urak kutsatzen ditu eta ez da bateragarria abereakaz eta uztakaz”.

## EZEZKOA FSC ZIURTAPENARI

Beste alde batetik, saio berean, Batzarretako taldeek ez dabe onartu Talde Mistoak aurkeztu dauen arauz besteko proposamen bat, Aldundiak eta Aldundiaren esku dagozan enpresek, FSC ziurtagiria sartzeko aukerea “aztertu deie la” eskatzeko. Aldecoaren berbetan, ziurtagiri horrek “erabilten diran produktuen jatorria, behar dan moduan kudeatutako basoetan dagola bermatzen dau”. Batzordeak onartu ez dauen beste ekimen batean, Aldundiak eta Aldundiaren esku dagozan enpresek, bereizgarri hori daukan papera eskuratzeko beste azterlan bat egitea eskatu dau.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek ez dabe onartu Talde Mistoak, alde batetik, gastuan “ahalik eta zorrotasun handiena” eskatzea eta, aldi berean, beste azterlan bi egitea



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

eskatzea, horrek Administrazioarako dituan gastuakaz. Gainera, adierazo dabenez, Foru Aldundiak “bere bide propioa” hasi eban 2004an ziurtapenen arloan, PCF (Klororik Bako Prozesua) eredia aukeratuz.

#### ARBOLEN MOZKETEA AREATZAN

Talde Mistoak eskatuta, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andreak, bertoko espezieak berbizteko Foru Aldundiak Areatzan baimendu eta kontrolauko dauen arbolen mozketea azaldu dau Batzarretako Taldeen aurrean. Bitarteko mozketak “93 hektareako” azalera hartuko dau, eta modu selektiboan, “913 ‘insignis’ pinu, 2.610 ‘douglas’ izei, 2.613 ‘lawson’ zipres, eta 3.648 pinu larizio” ebagiko dira.

Esku-hartze hori “12 hilebetez” gauzatuko da, Udalak egingo dauen enkantearen bitartez, eta Unzuetak azaldu dauenez, helburua, “zutik geratzen diran arbolen hazkundera hobetzea; bertoko zugatz orritsuen eta konniferoen berbizte naturala errezteko arbolak dagozan gunera argi gehiago sartzeko aukerea zabaltzea; lurzorua babes barik itzi barik eta higadurak eragindako arazoak txikituz, bioaniztasuna eta animalien eta landareen habitata babesteko arbolen estalgiari eustea; eta jarduera ekonomikoa eragingo dauen egurraren aprobetxamendua lortzea” da.

#### TXARTO ELIKATUTAKO ASTOAK ETA ZALDIAK BASAURIN

Basaurin, txarto elikatutako 34 asto eta zaldi konfiskatu izanaren inguruan, Aldundiak zehapen espedientea zabaldu dauela esan dau Unzuetak. Espediente horrek lau arau hauste larri ekarri daikez. Horreetako hirutan isunak “3.000 eta 60.000 euro artekoak” izan daitezke, eta beste batean “600 eta 6.000 euro artekoak”.

Unzuetak azaldu dauenez, identifikatu bako 23 asto eta zaldi eta beste Autonomia Erkidegoetako titularrak dituen beste 11 eukazan pertsona horrek, daborduko “14 zehapen espediente” ebazan. Foru Aldundiak aurrera eroan dituan jarduketakaz batera, Ertzaintzak be ikerketa prozesua zabaldu dauela esan dau diputatu andreak, pertsona horrek zigor kausak jaso daikezan ala ez jakiteko, eta gertakarien “larritasuna” eta “lehenengo aldia ez dala” kontuan izanda, posible dala pertsona horrek “zehapenen maila altuena” jasatea.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
19/07/2016

## **Bizkaia pide al Gobierno vasco que "impida" proyectos de exploración de hidrocarburos bajo la técnica del "fracking"**

Las Juntas Generales de Bizkaia han mostrado esta mañana, de nuevo, su desacuerdo en torno a utilizar la técnica de la fractura hidráulica para la exploración de hidrocarburos. La Cámara vizcaína han instado al Gobierno vasco, en el seno de la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural, a que en los permisos en los que participe el Ejecutivo autonómico a través de la empresa pública Shesa, “impida” que se lleve a cabo ningún proyecto de investigación, exploración o explotación de hidrocarburos no convencionales a través del “fracking”, tanto dentro como fuera de Euskadi.

En la proposición no de norma presentada de manera conjunta por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y apoyada por todos los grupos de la Cámara, a excepción del PP que se ha abstenido, se pide al Ejecutivo de Lakua que utilice “todas las herramientas jurídicas” para defender el mantenimiento de la Ley de Medidas Adicionales de Protección Medioambiental para la Extracción de Hidrocarburos no Convencionales y la Fractura Hidráulica o "fracking", aprobada por amplia mayoría en la Cámara Vasca, ley que fue recurrida por inconstitucional por el Gobierno central.

Asimismo, en la iniciativa no de norma, el Parlamento de Bizkaia insta también al Gobierno vasco “a no consignar partida económica alguna en futuros ejercicios presupuestarios para la investigación, exploración o explotación de hidrocarburos con esta técnica”.

En relación a este asunto, la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural ha debatido, de forma paralela, otra iniciativa del grupo juntero Podemos Bizkaia en la que se pedía al Gobierno central elaborar una "ley de prohibición" del uso de esta técnica y una "moratoria" sobre los permisos concedidos en el Estado. La iniciativa del grupo morado, desestimada por la Cámara, sólo ha contado con el apoyo de EH Bildu. El resto de grupos ha votado en contra.

Alexia Castelo, del PSE-EE, ha abogado por que el Gobierno vasco tenga una "postura clara" sobre el uso de esta técnica que fue la que originó la presentación de una iniciativa popular que aparcase su aplicación, recogida después por una iniciativa legislativa del Gobierno vasco que ha sido suspendida cautelarmente por los tribunales de justicia. La socialista ha tachado la iniciativa de Podemos de “un brindis al sol”.

La proposición no de norma aprobada hoy es la tercera que aprueban las Juntas Generales en contra de utilizar la técnica del “fracking”, después de otras dos acordadas en los años 2013 y 2014, según ha recordado María Presa. La juntera del PNV ha



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

explicado que su partido ha defendido “siempre” la misma postura en torno a este asunto. “No estamos cerrados a conocer el subsuelo, pero sí a explotarlo con la técnica del fracking”, ha dicho, para después insistir en que “habrá que estar al tanto de ver cómo evoluciona la tecnología”.

Arturo Aldecoa, del grupo Mixto, ha definido la proposición de Podemos de “ideológica”, mientras que la de PNV y PSE-EE es una postura “estratégica” que se mueve en relación a la bajada del precio del petróleo, que hace que no sea ahora necesario acudir a este tipo de explotaciones.

Para el PP, el debate debe girar en hacer extracciones “seguras y con las suficientes garantías”. Eduardo Andrés ha defendido el que se lleven a cabo estudios para conocer las reservas y “en el futuro elegir la técnica adecuada en cada caso”. Ha apuntado que la Ley vasca fue recurrida por el Estado porque planteaba la “retroactividad” y porque permitía prospecciones en zonas costeras y marinas, ámbitos que son de competencia estatal.

David Lopategi, de EH Bildu, ha criticado la postura “ambigua” que a su juicio ha mantenido el Gobierno Vasco y el PNV en el tema del “fracking”. “No son contrarios”. “Si la competencia fuera vasca, no tengo ninguna duda de que irían de cabeza”, ha dicho.

Mientras, Podemos Bizkaia ha aplaudido el cambio de rumbo ya que “hace cuatro años lo veían bien”. Su portavoz Neskutz Rodríguez espera que la proposición de jeltzales y socialistas sea “una apuesta clara por un desarrollo más sostenible”, ya que el “fracking” conlleva “grandes inconvenientes” para el medio ambiente. “Contamina las aguas y es incompatible con el ganado y las cosechas”.

## NO A LA CERTIFICACIÓN FSC

Por otro lado, en la misma sesión, los grupos junteros han rechazado una proposición no de norma del grupo Mixto para que la Diputación y las empresas forales “estudien” la posibilidad de incorporar la certificación FSC, la cual, a juicio de Aldecoa, “garantiza que los productos forestales que se utilizan tienen su origen en bosques bien gestionados”. En otra iniciativa también desestimada por la comisión, solicitaba otro estudio para que la Diputación y sus empresas públicas adquieran papel con este distintivo.

PNV y PSE-EE han rechazado que el grupo Mixto exija, por un lado, “máxima prudencia” en el gasto, e inste, por otro, a realizar dos nuevos estudios con lo que eso supone de incremento del gasto para la Administración foral. Además, creen que la Diputación ya inició en el año 2004 su “propio camino” en el ámbito de las certificaciones eligiendo el modelo PCF (Proceso Libre de Cloro).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## TALA DE ÁRBOLES EN AREATZA

A propuesta del grupo Mixto, la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha explicado a los grupos junteros la tala de masa arborea que la Diputación va a permitir y controlar en Areatza para regenerar especies autóctonas. La corta "intermedia" afecta a una extensión de "93 hectáreas" y se talarán de forma selectiva "913 pinos insignis, 2.610 abetos "douglas", 2.613 cipreses de "lawson", y 3.648 pinos laricios".

Esta intervención se producirá durante "12 meses", a través de una subasta municipal, y tiene como objetivo, según Unzueta, "permitir que los árboles que queden en pie mejoren su crecimiento; proporcionar una mayor entrada de luz a la zona de arbolado de manera que facilite la regeneración natural de frondosas autóctonas y coníferas; mantener la cubierta arbórea sin desproteger el suelo, minimizando los problemas causados por la erosión, para proteger la biodiversidad y el hábitat de fauna y flora; y obtener un aprovechamiento de la madera que redunde en actividad económica".

## GANADO EQUINO MAL NUTRIDO EN BASAURI

En relación a la incautación en Basauri de 34 ejemplares de ganado equino mal nutrido, Unzueta ha señalado que la Diputación ha procedido a la apertura de un expediente sancionador que puede acarrear hasta cuatro infracciones graves con multas que pueden oscilar, en tres de ellas, "entre los 3.000 y los 60.000 euros" , y en otra, "entre los 600 y los 6.000 euros".

Unzueta ha informado que esta persona, que tenía 23 equinos sin identificar y otros 11 con titulares procedentes de otras Comunidades Autónomas, poseía ya "14 expedientes" sancionadores. De forma paralela a las actuaciones forales, la diputada ha señalado que la Ertzaintza ha abierto un proceso de investigación por si esta persona pudiera incurrir en causas penales y que debido a la "gravedad" de los hechos y a la "reincidencia", al infractor le puede caer "el máximo grado de las sanciones".